

“IKUSKIZUNA AURRERA ERAMATEA IZAN DA POLITENA”



Elgoibar Ikastola | Jon Gurrutxaga | Bostak Kosmoan | Lehen Hezkuntza 2

Lehen aldiz parte hartu du eta buru-belarri aritu da. Bostak kosmoan bere taldea bigarren izan da Lehen Hezkuntza 2 kategorian. Jon Gurrutxaga arduradunaren erantzunak jarraian.

Ikastetxe bereko bi talderen arteko lehia estuak motibazio berezia eragin du?

Egia esan, lehia sana izan da gure artean. Gainera, elkarri asko lagundu diogu eta ikasleen artean ere elkertasuna sustatzen saiatu gara.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Dudarik gabe, motibazioa areagotu egin da. Gure kasuan, gainera, azken atalak indar handia izan du. Zuzeneko emanaldi bat eskaini behar izan genuen, gure lekutik kanpo, eskolatik kanpo, eta beraz, bazegoen emozio berezi bat haurren artean.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Egia esan, lan handia ematen duen lehiaketa da. Eskolak zehaztuta du LH3 eta LH5 kurtsoetan parte hartuko dugula. Horregatik, denbora dexente eskaintzen diogu. Dena den, gure lan dinamikaren osagarri da.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Bai, zalantzarik gabe, sariak beti dira motibagarri haurrentzat.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Ikastetxeari ere oso ongi datozkio sari gisa lortzen diren materialak. Eskola hornitzeko oso ongi datorkio.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Dudarik gabe, gure kasuan ikuskizuna aurrera eramatea izan da politena. Eguneko Zentruko nagusiek ilusio handiz bizi izan zuten egun hura, hurrek poztasun handia eskaintzen diete. Eta horren parte izatea oso polita izan zen.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Zailtasunak baino, buruan genuena aurrera eramateko kezka izan da gehiago. Ikuskizuna nola burutu Eguneko Zentroan, baimenak eskatu, nola grabatu... Bestalde, gero oso ongi konpondu ginen.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Talde lana sustatzen da. Besteen lana baloratzen ikasten da eta lantzen diren gaiak eduki esanguratsua izan ohi dute. Pozik aritzen dira.

Eta irakasleei?

Nire lehen aldia izan da eta lankideei asko galdetu behar izan diet kokatu ahal izateko. Baina azkenean eroso sentitu naiz. Esperientzia polita izan da eta lehiaketan parte hartzeaz gain, labore sozial polita egin dugunaren sententzia daukat.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Momentuan ez zait ezer bururatzen.